

# MAITASUNAREN ITXIERA

## PASCAL RAMBERT

Arriaga Antzokiak euskaraz ekoiztu du Pascal Ramberten *La clausura del amor* lan ospetsua, eta egileak berak zuzentzen ditu bi antzezle bikainak.

## ARRIAGA ANTZOKIAREN EKOIZPEN BERRIA

Maitasunaren itxiera antzezlanean, Miren Gaztañagak eta Eneko Sagardoyk pasioz eta gordintasunez eszenaratzen dute bikote baten haustura lazgarria. Pascal Rambert egile eta eszena-zuzendari frantziarraren *Clôture de l'amour* lanaren euskarazko egokitzaipena da Arriaga Antzokiak ekoiztutako lana. Teatro Kamikaze taldearen *La clausura del amor* gaztelaniazko bertsioak ere arrakasta handia izan zuen. Oraingoan, Arriaga Antzokiak euskaraz ekoiztu eta sustatu nahi izan du antzezlan hau, eta, gainera, Pascal Rambert bera da zuzendaria.

Maitasunaren itxiera lanean bikote baten elkarrizketa latza ikusiko dugu. Protagonisten bakarrizketa-trukeak hiltzen ari den maitasunaren bortizkeria adierazten du. Beldurra eta askapena nahastuko dira bikotearen elkarrizketa lazgarrian, gizon baten eta emakume baten arteko borroka suntsitzaile eta gupidagabea.

Intentsitatea, emozioa, pasioa, gordintasuna, mina... horiek dira Maitasunaren itxiera lanaren interpretazioa ondoen azaltzen duten hitzetako batzuk. Hizkuntza da garrantzitsuena, egoera batzuetan tortura fisikoa baino eraginkorragoa baita. Bi maitale aurrez aurre, hainbat urtez eraikitzaile eta suntsitzaile izan duten harremana betiko itxi nahian. Argudioak, kexak, gaitzespenak, mina, amorrua eta maitasuna gurutzatu egiten dira, pasioz eta errailetatik adierazten den hizkuntza zehatz, kirurgiko eta uholdezko baten bidez.

**Testua, zuzendaritza, eszenografia, argiak eta jantziak:** Pascal Rambert.

**Itzulpena eta bertsioa:** Eneko Sagardoy, Danele Sarriugarte.

**Antzezleak:** Miren Gaztañaga, Eneko Sagardoy.

**Zuzendari laguntzailea:** Lucia Astigarraga.

**Eskerrik asko:** Jordi Buxo y Teatro Kamikaze.